



Identifikazio elektronikoa herritarrentzat – BakQ



Zer da BakQ?

BakQ identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabide bat da, 16 urtetik gorakoentzat, eta identifikatzaile batez eta autentifikatzeko bi faktorez osatuta dago:

- Erabiltzailea (erabiltzailearen NAN/AIZ)
- Pasahitza (8 karaktere)
- 16 posizioko koordinatu-jokoa, 2021eko otsailaren 2a baino lehen eskatu baduzu, edo SMS bidez zure telefono mugikorrera bidalitako kodea.

Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan eta ezer instalatu beharrik gabe. Gainera, BakQ bat eskatzeak berekin dakar Bak ere erabiltzeko aukera; beraz, une horretatik aurrera horietako edozein erabili ahal izango duzu, kasuaren arabera.

BakQ bidez, online egin ahal izango dituzu kontsultak eta tramiteak administrazio publikoen zerbitzuetan. Tramite elektronikoak ere egin ahal izango dituzu.

BakQ emisioak berekin dakar Bak emisioa. Bi identifikazio-baliabideek pasahitza, harremanetarako datuak eta indarraldia partekatzen dituzte.

Eusko Jaurlaritzan izapidetze elektronikoa egiteko baldintza

Eusko Jaurlaritzarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izan nahi dituzten pertsonak BakQ identifikazio elektronikoa izan beharko dute.

Nola lortu BakQ?

BakQ izateko 3 modu daude:

- Aurrez aurre lortutako lizenperen herritarren ziurtagiri bat (txartel berdea) edo NANE baduzu, [on line eskaeretatik](#) eska dezakezu BakQ.
- Urrunetik, [online eskaerak](#) ataletik, bideo-identifikazioarekin.
- Aurrez aurre, jarritako arreta-guneren batean. Proposatzen dizugun mapan aurki dezakezu hurbilen duzun arreta-puntua (600 puntu baino gehiago dira), bertan BakQ eskatzeko zer erakunderengana jo dezakezun ageri da.

Non eskatu BakQ?

Beste BakQ bat behar baduzu, errazena da aurrez aurreko arreta-gune hauetakoren batera joatea hori eskatzeko. Eskaera-puntu hurbilena proposatzen dizugun [mapan](#) bila dezakezu. Mapa horretan, BakQ eskatzeko zein erakundetara jo behar den erakusten da.



Identifikazio elektronikoa herritarrentzat – BakQ

Nola erabili BakQ?

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egoitza elektronikoa eta bulego birtualak dituzte, eta bertan identifikatu behar gara, gure kudeaketak izapidetu eta haiekin kontsultatu ahal izateko.

Identifikazio arin eta erraz baterako, **Euskadiko Identifikazio Ataria** erakusten dute.

Eusko Jaurlaritzak eskaintako identifikazio-sistemak. Hau da, Eusko Jaurlaritzan, BAKen bidezko identifikazio elektronikoa ez da baliozkoa.

Nola erabil dezaket BakQ beste administrazio batzuetan?

Euskadiko identifikazio elektronikoko ataria erabiltzen ez duten administrazio eta erakundeekin harremanetan jartzen bazara, zure BakQ ere erabil dezakezu identifikatzeko eta sinatzeko.

Sinadura kualifikatuko ziurtagiri bat bere BakQ-en parte da. Horregatik, eta ziurtagiri hori txartel fisiko batean (herritarren ziurtagirian, esaterako) egongo balitz bezala erabili ahal izateko, Izenpek Txartel birtuala jartzen du zure eskura.

Zure ordenagailuan instalatzen den software arin bat da, ziurtagiri digitalak erabiltzea ahalbidetzen duen edozein egoitza elektronikotan edo bulego birtualetan identifikatu ahal izateko. Horrela, txartel birtualak beste edozein ziurtagirik bezala funtzionatzen du, eta edozein izapide eta zerbitzutan erabil daiteke.

Txartel birtuala: BakQ: [Txartel birtualaren funtzionamendua deskargatzea eta kontsultatzea](#)